

/ Nabarmenezkoak

- > San Isidroko jaiak (3. or.)
- > Eskola-orduz kanpoko euskarazko jardueretarako eta euskal kultura sustatzeko (4. or.)
- > Getxo Saskibaloiko mutilak Lehen Maila Nazionalera igo dira (5. or.)

Argazkia: Arenas Club



*Harrera Arenas Club-i, RFEFeko lehen mailara igotzeagatik (5. or.)

Kontzertua. Hilak 16 (ostirala), 21:00etan, Muxikebarrin, Euskoprincess. 5€.

Zartzueta. Hilak 17 (larunbata), 20:00etan, Muxikebarrin, "La revoltosa". 24€.

A-GENDA

Euskaraldiaren hasiera ekitaldia maiatzaren 15ean Portu Zaharrean, Gure Zirkuak jarritako karpapean

Euskaraldia, elkar mugituz egingo dugu lelopean, maiatzaren 15ean, ostegunean, 18:00etatik aurrera, Algortako Portu Zaharrean kokatutako Gure Zirkuaren karpan izango da Euskaraldiaren laugarren edizioari hasiera emango dion ekitaldia. Euskal Herriko herri administrazioen eta Tauparen arteko elkarlanean gauzatuko den euskararen erabilera aktibatze mugimendua sustatuko duen ekimena maiatzaren 15etik 25era izango da. Getxon horren sustapena arduratzen den batzordeak (Udalak, eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek osatuta) mota askotako jarduerak antolatu ditu herritarrek hizkuntza ariketan parte hartzeri animatzeko, norberak bere rolaekin (Ahobizi, Belarriprest edo Irribizi). Izenematea hilaren 14ra arte egongo da irekita www.getxoztarrak.eus helbidean.

Euskaraldiaren helburua hizkuntza-ohituraren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da, eta entitateek euskaraz bizitzeko neurriak hartzea ere. Udalak eta erakunde autonomoek izena eman dute ekimenean entitate gisa parte hartzeko eta herritarrak animatzen dituzte era pertsonalean ere konpromisoa hartzeko. "Euskara gure altxorra da eta Udaletik, beste behin ere, euskararekin dugun konpromiso irmoa agertu nahi dugu. Horregatik euskararen erabilera sustatzeko Euskaraldiarekin bat egiten dugu. Elkar mugituz egingo dugu, Getxo eta euskara bat eginda. Euskara maite dugulako!", nabarmendu du Amaia Aguirre alkateak.



Hasiera-ekitaldia

Maiatzaren 15ean, 17:30etik aurrera, Andrés Isasi Musikalia bandak kalejira bat egingo du Etxetxu plazatik, eta karparako sarrera ere girotuko du, ALBEko bertsolariarekin batera. Bertan, azken hilabeteotan herrian egindakoaren laburpen-bideoa ikusi ahal izango da, Getxoko Hamaikakoaren eta manifestuaren aurkezpena izango da, eta Gure Zirkuarekin gozatu ahal izango da, txapak jarri aurretik. Ekitaldiari amaiera emateko, Musikalia bandak Bulego taldearen Gure bihotzaren Taupadak abestiaren adaptazioa eskainiko du, Asier Ituarte Musika Eskolako irakasleak egindako moldaketekin. Hauxe izango da Getxok Euskaraldiari egindako aportazioa.

Jarduerak

Euskararen erabilera Udalak eta herriko eragileek duten konpromisoa hamabostaldi honetan inoiz baino presenteago izango da, mota askotako jardueraren bidez une eta toki desberdinetan. Horien artean, ostiralean, maiatzak 9, bingo musikala izango da Areetako Geltokia plazan, eta Algortako Geltokia plazan, igandean, maiatzak 12, dantza-plaza Ebats taldearekin, eta maiatzaren 14an, goizean herri kirolak; arratsaldean, Nola erabili euskara gehiago familian? izeneko merienda eta dinamika Aldai patronatuan, eta Hau gerra bat da antzerkia Villamonteko Kultur Etxean. Hilaren 15ean Bizkaia Irratiak, Udaleko Komunikazio sailak, Hirukak eta Vinilo FMek irratsaio bat egingo dute, getxotarren partaidezarekin. Hurrengo egunean, ostiralean, maiatzak 16, murala bat margoztuko dute, Benta aurrean, Andra Mariko jaietan, eta maiatzak 17, Eskerrik asko Irribizi & Belarriprestei ekitaldia ospatuko da. Informazio gehiago: www.getxoztarrak.eus

Establezimenduak euskararen alde

Bestalde, Algortako Dendak merkatarien elkar-teak bat egin du Euskaraldiarekin, Algortako dendak euskararen alde kanpaina osatuz, Udalaren laguntzarekin. Horretarako, establezimenduek beren erakusleihoetan hartutako rola erakutsiko dute tokiko artista batek egindako diseinuen bidez. Era berean, Getxoko Euskararen Laguna Saltokiek erakusleihoan Euskaraldiaren biniloa ere ipiniko dute.

Taxi zerbitzu iragankorra eta eskusiboa Azkorriko autobusaren geralekuak kendu diren gunerako

Udalak taxi-zerbitzu aldi baterako eta eskusiboa jarri du martxan Azkorriko autobusaren geralekuak kendu diren eremuan, behin betiko konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren probak egiten diren bitartean.

Hala, Gabriel Ramos Uranga kaletik Azkorriaraino aldi baterako ezabatutako geralekuak ordezkatzeko doako taxi zerbitzua da, joanekoa zein itzulerakoa. Taxiak eskatu ahal joango dira eta 94 491 53 53 telefono zenbakira deituta eskatu behar dira. Zerbitzuaren ordutegia 7:00etatik



22:00etara izango da.

Amaia Aguirre alkateak barkamena eskatu du inguru horretan autobusa kentzeak eragindako eragozpenengatik. "Jakitun gara honek sor ditzakeen eragozpenez, eta eskerrak eman nahi dizkiet inguruko bizilagunei trantsizio epe honetan erakutsitako pazientziagatik eta ulerkortasunagatik. Kasu honetan kontua ez da dirua, prozedura administratibo eta juridikoen konplexutasuna baizik. Gure konpromisoa da lanean jarraitzea linea berrezartzeko eta mugikortasuna ahalik eta modu egokienean errazteko".



MAIATZAK 8 OSTEAGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Cuentos de andar por casa" (gaztelaniaz) Beldebil taldearekin. 3 urtetik aurrera.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Florian Zellerren "El hijo" (JBA). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 18:00etan, "Con voz de mujer. Conoce de cerca la historia y el feminismo romani". Hizlariak: Kelia Vizarraga eta Soraya Motos (Sim Romi Emakume Ijitoen elkarte). Antolatzailea: Gizatiar.

Erakusketa. Batzoki Taberna Algortan, Carmen Caraviasen "Caras" (akrilikoak). Ekainaren 15era arte.

Diru-bilketa solidarioa. 70 urte minbiziaren biziraupena babesten. 09:00etatik 13:00etara, boluntarioek dohaintzak jasoko dituzte "Minbiziaren aurka Bizkaian" elkar-tearantz.

MAIATZAK 9 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alice Rohrwacherren "La quimera" (JBA). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

Kontzertua. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Hango Tango" (Musikeneko Interpretazio Masterraren ikasleak). Sarrera dohainik.

MAIATZAK 10 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Yerma" (euskaraz) La Dramática Erranterekin. 8€.

Getxo Eszena Kalean. Antzerkia. 20:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Plaza" (ele bitan) La Pez taldearekin. Sarrera doan.

Kontzertua. MAJAZZ zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Iñar Sastre. 5€.

Dantza plaza. 19:00etan, Malakate parkean, erromeria udalerriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzag, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola. Antolatzaile: Itxas Argia.

Umeen dantzaldia. 17:15ean, Malakate parkean hasita, kalejira. 17:45ean, Andra Mariko kiroldegiko parkalekuan, dantzaldia.

Jardunaldi botanikoak. 09:00etan, irteera Getxo eta inguruetatik landareak biltzeko. Arratsaldean jasotako sailkatuko da Aldai Patronatuan. www.basozaleak.com

MAIATZAK 11 IGANDEA

Jardunaldi botanikoak. Erakusketa. 11:00etatik aurrera, landareen erakusketa San Nicolas plazan.

Zinemabiziki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Looneyago lurrak eztanda egin zuen eguna". Adin guztiak. 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El lobo y el león". Adin guztiak. 2,50€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarri aurrean, La Tokokera. Sarrera doan.

Haur dantza. 18:00etan, Muxikebarrin, "Amama", Aukeran konpainiarekin. 4 urtetik aurrera. 6€.

MAIATZAK 13 ASTEARTEA

Jardunaldi botanikoak. 19:30ean, Alday patronatuan (Caridad kalea 1), "Bolueko hezegunea: biotopoa eta flora". Hizlaria: Enrique Elexpuru. www.basozaleak.com

MAIATZAK 14 ASTEAZKENA

Antzerkia. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Hau gerra bat da" (euskaraz) Pizifaktoria konpainiarekin. Antolatzailea: Abian Kultur Elkarte.

Hitzaldia. 18:00etan, "Desigualdad, violencia y males de género". Hizlaria: Maitena Monroy (Tartekari Sarea). Antolatzailea: Gizatiar.

MAIATZAK 15 OSTEAGUNA

Andra Mariko Jaiak. San Isidro. Egitarau osoa: <https://labur.eus/unxbw0xa>

Jardunaldi botanikoak. 19:30ean, Alday patronatuan (Caridad kalea 1), "Inguruko landareak: ezagutu". Hizlaria: Mentxu Amunategi. www.basozaleak.com

MAIATZAK 16 OSTIRALA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Carolina y la cerilla" albumaren aurkezpena, Juan Kruz Igerabide idazlearekin eta Belén Lucas ilustratzailearekin.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, François Ozonen "Cuando cae el otoño". 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Euskoprincess. 5€.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica VI". Hizlaria: Diego de Amigo, (biolinista, konpositorea eta Barakaldoko eta Gasteizko kontserbatorioetako irakaslea). Antolatzailea: All'Antica Musika kultur elkarte. Sarrera doan.

Andra Mariko Jaiak. San Isidro. Egitarau osoa: <https://labur.eus/unxbw0xa>

MAIATZAK 17 LARUNBATA

Getxo Eszena Kalean. Antzerkia. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Finito-infinito", Trotamundos konpainiarekin. Sarrera doan.

Kontzertua. MAJAZZ zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ander García Jazz Basque Project. Sarrera: 5€.

Zarzueta. 20:00etan, Muxikebarrin, "La revoltosa". 24€.

Andra Mariko Jaiak. San Isidro. Egitarau osoa: <https://labur.eus/unxbw0xa>

XXIX. Herrien Jaialdia. 21:00etan, Andra Mariko frontoian, herrien festa. Talde gonbidatua: Murziako 7 Coronas de la Peña Huertana La Crilla koru eta dantza taldea. Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea.

Toponimia-ginkana bizikletaz. 17:30ean, Andra Mariko kiroldegian, 6 urtetik gorakoentzat, euskaraz, naturgunea eta ondareaz gozatzeko, SENDI proiektuaren barruan. Izenematea: 622 433085 / sendigetxo@gmail.com

MAIATZAK 18 IGANDEA

Zinemabiziki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Yuku y la flor del Himalaya" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarri aurrean, Garbayo. Sarrera doan.

Dantza. 18:00etan, Muxikebarrin, "Dantzan", Gora Musika! konpainiarekin. 6€.

Getxo Antirrazista antzerki talettera. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, itzalaldiagatik atzeratutakoa. Informazioa: antirumores@getxo.eus / 662 425 662

Andra Mariko Jaiak. San Isidro. Egitarau osoa: <https://labur.eus/unxbw0xa>

120.000 euro Getxo Rugby Taldea, Punta Galea Tx. E. eta Etorkizuna Mendi Taldearentzat

Udalbatzak 120.000 euroko kreditu gehigarri bat onartu zuen, Getxo Rugby Taldea, Punta Galea Txirrindulari Elkarte eta Etorkizuna Mendi Taldea kirol klubei diru-laguntza izendun bat emateko, klub horiek 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiak finantzatzeko (Getxo Rugbyk 50.000 euro jasoko ditu, Punta Galeak beste 50.000 eta Etorkizunak 20.000). Proposamenak talde politiko guztien aldeko botoak jaso zituen, Elkarrekin Podemosen izan ezik, abstenitu egin baitzen diru-laguntza izendunak emateko orduan irizpide ezezagunak erabiltzen direla irizita. Udal Gobernutik adierazi zuten ez dagoela inolako diskrezionaliterik diru-laguntza mota horri dagokionez; izan ere, udal teknikariek klubekin lan-kidetzan egin dute diru-laguntzen balorazioa, klub beraien beharren arabera.

Bestalde, aurrekontua aldatzeko hainbat ebazpenen berri eman zen, 3,6 milioi euroko kreditu gehigarriaren bidez. Nabarmentzekoa da 1.940.000 euroko kreditu gehigarria, Getxo Kirolak-eko frontoien egiturak indartzeko obraren eta obraren zuzendaritza birfinantzatzeko; eta 1.190.150 euroko beste kreditu gehigarri bat, Azpiegituren Arloko inbertsioak birfinantzatzeko.

Era berean, Udalaren antolaketa-egituraren barruan, zerbitzuen ardura duten korporatiboen izendapenen aldaketa baten berri eman zen. Horrela, Alvaro Gonzalez zinegotzi jeltzaileak Hirigintza Diziplinako Zerbitzua ere bere gain hartuko du, Hirigintza Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloari atxikitako zerbitzua, zeinaren titularrak baita.

Garapen jasangarrirako hezkuntzari buruzko elkarrizketa-jardunaldia

Datorren ostiralean, hilak 16, 09:30etik 17:30era, Santísima Trinidad Ikastetxean eragile anitzeko elkarrizketa jardunaldi bat egingo da 2030 Agendaren 4.7 xedearen inguruan, garapen jasangarrirako hezkuntza ardatz duena, UN Etxeak eta Regional Centre of Expertise Basque Country-Navarre erakundeak antolatuta. Jasangarritasunerako hezkuntzan lan egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako eragileek garapen jasanga-

rrirako hezkuntzaren eta bizimodu jasangarrien, giza eskubideen, generoen arteko berdintasunaren, bake kulturaren eta abarren inguruko ezagutzak eta hausnarketak trukatzeko gunea izango da.

Jardunaldia tokiko eremuan erantzukizun politikoa duten pertsonen, profesionalen, hezitzaileen, gazteen, GKEen, sektore pribatuari, ikasleei... zuzenduta dago.

Argibideak eta izen-emateak: <https://labur.eus/1c04ctli>



Bisita Marcelino Gayubori bere 100 urtebetetzeagatik

Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Marcelino Gayubo Martínez auzokidea bisitatu zuten aurreko asteartean, maiatzaren 7an, Romoko etxebizitzan, 100 urte bete zituela eta. Sestaon jaioa, Getxon duela 75 urtez geroztik bizi da gizona. Hiru alaben aita da eta sei biloba ditu, eta ohi bezala, udal agintariek Aixerrrotaren oroigarria eta lore sorta bat eman zizkieten.

Udalbatzako mozioak

Udalaren azken osoko bilkuran, aurrekontutako sei mozioetatik bost onartu ziren, testigantzako izaera hutsarekin. Horietako bi eremu soziosanitarioekin lotuta zeuden: PPK laguntza funts bat sortzea eskatu zuen bainuontziak dutekin aldatzeko, 65 urtetik gorako pertsonen mesedetan eta haien errentaren arabera. Eta EH Bilduk, behar soziosanitarioak dituzten pertsonentzako etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko dirulaguntza lerro bat sortzea eskatu zuen, 2026ko aurrekonturako dirulaguntza lerro hori finantzatzeko aurrekontu partida bat gaitzeko eta akordioa udal departamentu eskudunei helarazteko, aztertzeko, oinarriak egiteko eta ondoren ezartzeko.

Gobernu taldeak, mozioren espirituarekin bat egiten zuen arren, argudiatu zuen kalteberatasun- eta mendekotasun-beharrak sistemak betetzen dituela, bai beste erakunde batzuek eskaintzen dituzten laguntzengatik, bai Udalak ematen dituenengatik (GLLak eta Laguntza Ez Aldizkakoak).

PPren beste mozio batek Udalak bidegorrien mantentzea hobetzeko neurriak sartzea eskatzen zuen. Eta EH Bilduk eskatu zuen Udalak neurriak har zitzala Portu Zaharreko autoen trafikoa arautzeko eta ekainetik irailera La Ola jatetxetik mugatzeko eta egoiliarrentzako TAO bat jartzeko.

Bosgarren mozioak, Elkarrekin Podemosek aurrekontutakoa, Getxoko eta Leioako udalen aldetik koordinazio mahai iraukor bat sortzea proposatzen zuen, Amaia kalean partekatzen dituzten eremuetan mugikortasuna eta hiri trazadura hobetzeko, Putzegilearen biribilgunea inguratzen duen eremuan lehentasuna izanik.

Galde-eskeen txandan, herritar batzuek autobus zerbitzua Azkorriko azken geralekuraino berriz ezartzea erreklamatu zuten, eta auzokide baten kasuan, anezka bat eskatu zuen.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Ollondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Yerma”ren azken emanaldia, La Dramática Erranterekin

Muxikebarrin, larunbatean, maiatzak 10, *Yerma* La Dramática Errante konpainiaren azken emanaldia izango da. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balio du.

Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli

Astoreka, Leire Orbe eta Unai Izquierdo dira protagonistak, eta Federico García Lorcaren lan handiaren bertsio honek aurre egiten digu ama ezinaren aurrean patu gupidagabe baten aurka borrokatzen den protagonistaren bakardadeari, frustrazioari eta etsipenari.

La Tokokera Kristalezko Kioskoan

Muxikebarriko kanpoaldeak Kristalezko Kioskoaren programazioaren doako kontzertu berri bat hartuko du igande honetan, hilak 11, 13:30ean. Oraingo honetan La Tokokera izango da, cumbia erritmo latindarrekin (salsa, merengue eta boogaloo) uztartzen duen konboa, Latinoamerikako, Euskal Herriko eta Galiziako kideen aniztasunari esker. Bere abestiek injustizia soziala, nostalgia eta egunerokotasunaren absurdoa jorratzen dituzte, dantzaz eta energia betetako eszenaratze dardarati batekin.



Iñar Sastre MAJAZZ zikloan

Iñar Sastre piano-jotzaile gipuzkoarrak kontzertua eskainiko du larunbatean, hilak 10, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, MAJAZZ (MaiatzaJazz) zikloaren barruan. Errezitaldia arratsaldeko 19:30tan hasiko da eta Maurice Ravel musikagilearen lanari eskainiko zaio, bere jaiotzaren 150. urteurrenean.

Moldaketa eta konposizio propioen bidez, Sastrek Ravelen sonoritate bereizgarriak eta jazzaren eragina duten esplorazio berriak uztartzen ditu, bere ondarearen eta musika garaikidearen arteko elkarrizketa sortuz. Omenaldi berritzailea bere obra berriz deskubritzeko. 5€.



“Plaza”, kale antzerkia Areetan La Pez-ekin

Getxo Eszena Kalean kaleko arte eszenikoen programaren barruan, larunbat honetan, maiatzak 10, 20:30etik aurrera, Areetako Geltoki plazan La Pez euskal konpainiaren “Plaza” antzezlanak izango da.

Euskaraz eta gaztelaniaz irudikatzen den lan hau “sentimendu baten historia da”. 2024ko Umore Azokan Euskadiko Ikuskizun Onenaren Saria jaso zuen, freskototasunagatik, hurbiltasunagatik eta publikoarekin duen erabateko komunikazioagatik. Tokikotik globalera doan erakusketa izateagatik, bihotzarekin hitz egiteagatik eta dramaturgia berriez erabiltzeagatik, komunitatea eta elkartasuna, errespetua eta desberdintasunaren aldeko borroka bezalako balioak sortzen baitituzte.

“Amama”, Aukeran Dantza Konpainiaren familia-ikuskizuna

Aukeran dantza konpainiak *Amama* familia ikuskizuna aurkeztuko du Muxikebarrin, maiatzaren 11n, igandea. Proposamen honek memoria eta tradizioaren zaindari diren amonak omentzen ditu. Dantzaren eta musikaren bidez, bidaia emozional batean murgiltzen gaitu, non maitasunak, transmisio kulturalak eta oroitzapen partekatuek bizia hartzen duten eszenan. Sentiberatasunez eta energia betetako ikuskizunak belaunaldiak batzen ditu mugimenduaren hizkuntza unibertsalaren bidez. 18:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 6 eurokoa da.




XXVIII. Botanika Jardunaldiak asteburu honetan hasiko dira

Basozaleak elkarteak XXVIII. Botanika Jardunaldiak egingo ditu maiatzaren 10etik 15era. Ohi bezala, irteera batekin hasiko dira Getxon eta inguruetan, larunbat honetan, hilak 10, 09:00etatik 13:00etara, arratsaldean sailkatuko diren laginak hartzeko, Getxoko Mikologia eta Botanika Elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, Algorta), jardunaldien antolatzailea, eta 11:00etatik 14:30era San Nikolas plazan, igandean, egingo den erakusketarako oinarri gisa balioko dutenak.

Erakusketa Algortan

Ekainaren 15era arte, Carmen Caravias artista getxotarraren *Caras* erakusketa bisitatu ahal izango da Algortako Batzoki Tabernan. Formatu ertain-handiko 5 akriliko dira, emakume aurpegiaren ikuspegia jasotzen dutenak.



Aurten, aurreikusitako hitzaldiek gai hauek izango dituzte: *Bolueko hezegunea: biotopoak eta flora*, asteartean, hilak 13, 19:30ean, Enrique Elempururen eskutik, eta *Gertuko landareak: ezagutu, ostegunean*, hilak 15, ordu berean, Mentxu Amunategirekin. Biak elkartearen egoitzan izango dira (informazio gehiago: astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era). Informazio gehiago <http://www.basozaleak.com>

San Isidroko jaiak

Maiatzaren 15etik 18ra Andra Marín San Isidro jaiak ospatuko dira. Txupinazoa ostegunean, hilak 15, izango da, 20:00etan, kiroldegiko aparkalekuan, eta, une horretatik aurrera, jende guztiarentzako jarduerak izango dira. Ostiralean eta larunbatean, 23:00etatik 06:30era, autobus batek Metroraino hurbilduko ditu interesa duten pertsonak. Programa osoa: <https://labur.eus/unxbw0xa> Udalak gune more bat prestatuko du indarkeria matxisten biktimentzat, arreta jasotzeko. Ordutegia hau izango da: ostiralean, hilak 16, 23:00etatik 05:00etara; larunbatean, 21:00etatik 23:30era, eta igandean, 00:00etatik 05:00etara.

Tokiko jaiak

Maiatzaren 15ean, osteguna, San Isidro eguna, aurten dagokion herriko jaiak izango da Getxon. Hori dela eta, Udalaren bulegoak itxita egongo dira eta beste batzuek jai eguneko ordutegia izango dituzte. <https://labur.eus/asowx1ma>

Eskola-orduz kanpoko euskarazko jardueretarako eta euskal kultura sustatzeko

Datorren maiatzaren 30era arte zabalik izango da euskara sustatzen duten eskola-orduz kanpoko jardueren proiektuak diru-laguntzen urteko deialdira aurkezteko epea. Horietarako Udalak 42.000 euro onartu ditu, hurrengo bost ildotan:

- Hizkuntza-murgiltze laburreko jarduerak laguntzeko 5.000 euro izango dira, hala nola barnetegiak edo eguneko irteerak, lehen ildoan.
- Bigarrenak, 10.000 euroekin, aldi luze batean euskararen erabilera aktiboa bilatzen duten ekimenak bultzatuko ditu, esate baterako antzerkia, bertsoak edo berbodromoak.
- Hirugarren lerroa, 7.000 euroekin, errefortzu klaseetarako izango da, euskara maila ez edukitzeagatik beren heziketa prozesuan arazoak dituzten pertsonentzat.
- Laugarren lerroak 15.000 euro zuzenduko ditu euskaraz garatzen diren ohiko jardueretara, horien artean, robotika, dantza, sukaldaritza, zirkoa, yoga futbol, saskibaloia, xakea.
- Bosgarrena, 5.000 euro, Euskararen Eguna, euskal astea bezalako ekitaldiak antolatzeko.

Bestalde, Udalak 42.557 euro onartu ditu euskal kultura sus-



tatzeko jarduerak egiten dituzten elkarte, erakunde edo enpresarentzat, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatze aldera, ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak jasotzen duenaren arabera.

Lehenengo ildoak 11.760 euro banatuko ditu euskarazko jarduerak antolatzeko lokal baten gastuetan laguntzeko; bigarrenak 2.625 euro San Juan jaia antolatzeko gastuak ordaintzeko; hirugarrenak 21.472 euro auzotako Olentzeroak antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzeko; laugarrenak 4.200 euro Euskal Herriko gazteei Getxo eta bere kultura ezagutzera emateko, eta bostgarrenak 2.500 euro Getxoko gazteei Euskal Herria eta euskaraz egiten den kultura ezagutzera emateko.

Ildoetarako eskaerak aurkezteko epea datorren maiatzaren 15era (barne) egongo da zabalik, hirugarren ildorako izan ezik, hori urriaren 16an amaituko baita. Eskaerak, ahal dela, Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago: <https://www.getxo.eus/eu/euskara/subvenciones/subvenciones-euskera1>



Eskola-bertsoen jaia Portu Zaharrea kokatutako Gure Zirkua karpan

Andra Mari, J.B.Zabala eta Romo herri ikastetxeetako, eta Geroa, Gobela eta San Nikolas ikastoleetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak 250 bat ikasle parte hartu zuten astelehenean, maiatzak 5, *Eskolatik Plazara* saioan, Gure Zirkua Portu Zaharrea kokatutako karpapean. Udalak eta ALBE Algortako Bertso Eskolak antolatutako topaketa horretan gazteek aurtengo ikasturtean Nahikari Ayorekin eta Ander Romerorekin bertsojaritza-klaseetan ikasitakoa erakusteko aukera eduki zuten, Ane Labakaren eta Peio Lagoren bertsoak entzuteaz, eta malabarista baten eta kontorsionista baten ariketak ikusteaz gain. 2024/2025eko ikasturtean, orotara, aipatueta-ko zentroetako eta Aixerrota, Julio Caro Baroja eta Artaza-Romo institutuetako 680 ikasle parte hartu dute ekimenean, bertsoen mundura hurbiltzeko eta etorkizunari begira ALBE eskolan ikasten jarraitzea animatzeko.

Beharsarea atari digitala sustatzeko ekimenak

Beharsarea atari digitala sustatzen duten udalerriek (Getxo, Erandio, Leioa, Basauri eta Galdakao), Alkarbide, Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilguneak koordinatuta, jarduera ikusarazteko eta sustatzeko hiru ekimen jarriko dituzte martxan aurten. Beharsarea 2011n sortu zuten Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Egizu Euskara Elkarteak, euskaraz lan egiteko prest dauden langile euskaldunak (ume-zaintzaileak, tabernariak, dendariak...) eta profil horiek behar dituzten herritarren arteko zubi-lana egiteko, hau da, profesional euskaldunen eskariari erantzuna eman ahal izateko, gainera, era arin batean.

Arintasun hori hobetze aldea, aurten atariak lan-poltsen bidez egituratuko du bere zerbitzua, eskaintzak eta erantzunak hobe bideratu eta erantzun ahal izateko. Horretarako, urtean zehar hiru lan-poltsa mota eskainiko dira. Martxan jarritako lehena udako aisialdira begira begiraleei eta entrenatzaileei dagokiena da. Bestalde, biga-

rrena ikasturte berriaren atarian, umeak zaindu edota haiei eskolak emango dizkieten langileena izango da, eta hirugarrena, Gabonetako kanpainari begira, merkatarien eta ostalariena izango da. Atarian, euskara eskolan emango dituzten edota euskaltegietan ariko diren irakasleei zuzenduriko lan-poltsa berria ere aurkitu ahal izango dute erabiltzaileek. Informazioa: www.beharsarea.eus



Harrera Arenas Club taldeari, Lehen RFEFera igotzeagatik

Lehen RFEFera igo direla eta, Arenas Clubeko taldeari eta zuzendaritzari harrera egin zieten Udaletxean iragan asteartean, hilak 6, Amaia Aguirre alkateak eta Udalbatzako ordezkariak. Ekitaldia Klubak berak eskatuta egin zen, osoko bilkuren aretoan, eta berrogeita hamar pertsonatik gora bertaratu ziren.

Amaia Aguirre alkateak eskerrak eman zizkion taldeari denboraldian egindako ahaleginagatik eta "zalego handiari" babes leialagatik, eta, ondoren adierazi zuen: "Arenas Clubek gertaera gogoangarri ahaztezina lortu du igoerarekin, eta Getxo, beste behin ere, estatuko futbolaren mapan jartzeagatik. Badakigu kirolak, futbolarik ezinbesteko balioak sustatzen dituela zelai barruan eta zelaitik kanpo. Ahaleginik, talde-lanik, konpromisorik eta iraunkortasunik gabe, ez da horrelako helbururik lortzen. Horregatik, zuen ereduak inspiratu egiten gaitu eta, gizarte gisa, hobeak egiten gaitu".

Bestalde, Arenas Clubeko presidente Gorka Zurinagak Udalaren harrera eskertu zuen, eta adierazi zuenez, "kirol arrakasta hau ez da Klubarena bakarrik, Getxo osoarena baizik. Arenas hazten denean, udalerrri osoa hazten da. Nortasun kolektiboaren sinbolo gara, getxotar asko eta asko batzen gaituen esfortzuaren eta pasioaren isla".

Aguirrek eta Zurinagak maitasun, oroitzapen eta animozko hitz batzuk ere izan zituzten Jose Angel Ortega Kali taldeko utileroarentzat, igandean istripu larri bat izan baitzuen igoera bikainaren ospakizunean, eta edizio hau ixtean, egoera kritikoan jarraitzen zuten.

Bai alkateak eta bai Arenaseko presidentek konpromisoa agertu zuten etorkizunari begira lanean eta kolaboratzen jarraitzeko, etor daitezkeen erronkei aurre egiteko.

Historikoa Lehen RFEFekoa izango da datorren denboraldian.



Getxo Saskibaloiko mutilak Lehen Maila Nazionalera igo dira

Getxo Saskibaloiko Taldeko gizonen ekipoak Getxoko kirolaren bolada bikainari jarraipena eman zion joan den asteburuan, igoera berri batekin. Getxo Saskik Unamuno taldeari irabazi zion La Casillan 62-63ko emaitzaz, Lehen Nazional mailara zuzenean igotzeko aukera ematen dion garaipea. Halere, urduritasunak taldeari eragin zion, une txar batera eramateraino, bere gaztetasunak

jaurtiketetan oso ahul egotea eragin baitzuen, urduri eta asmatu gabe ibili zen, eta horrek oztopatu zuen bere jokoa partida osoan zehar, aurkari boteretsu baten aurrean, oso landua, jokalaria oso on eta biziak dituen. Hala ere, erreakzionatzen eta garaipena lortzen jakin zuten.

Azkenean, poztasuna izan da nagusi talde hori-beltzean, aurreko denboraldian EBA ligan jarraitzeari uko egin eta Bigarren Mailara jaitsi ondoren, kategoriaz igo baita.

Olaia Tejada Munduko lineako dantza Txapelketara

Olaia Tejada, Getxoko Club Show-eko dantzari eta patinatzailea, ekainean Benidormen jokatu den Munduko lineako dantza Txapelketan izango da. Horako txartela Benidormen bertan egindako nazioarteko azken txapelketan atera du, non urrezko bi domina lortu zituen Novice Femalen (klasikoan) eta Proam Novicen (bikotekoan) eta brontzezko bat Modern Acen.

Partida amaitu ondoren, Mikel Fernandez entrenatzailea oso pozik agertu zen egindako lanarekin. "Hasieratik genekien oso zaila izango zela. Partida irabazi egin behar genuen, eta irabazi egin genuen. Sekulako mutilak dira, animaliak bezala lan egiten dutenak. Eta asko poztzen naiz haiengatik, abendu-urtarrilean bolada txarra igaro genuelako. Baina, hitz egitera eseri ginen, eta itzultzea lortu dute, eta nola gainera!", esan zuen.



Silvia Marcék irabazi du Snipe klaseko Espainiako Txapelketa

Emaitza bikainak lortu dituzte RCMA-RSC elkartearen José Luis de Ugarte Bela Eskolako estropadalariek jokatu diren azken txapelketetan. Silvia Marcé estropadalaria (irudiaren bigarren mailan) Valentzian jokatu berri den Snipe klaseko emakumezkoen Espainiako Txapelketa irabazi du. Mahongo Real Club Marítimoko Sara Franceschi izan zuen ontzikide. Bestalde, Gaspar Gallingerrek txapeldunorde bukatu zuen Concello da Sada-Galiziako Txapelketan, ILCA klasean. Sissel Acasuso hirugarren sailkatu zen Portugalgo Vaurien klaseko Iberiar Txapelketan. Eta 420 klaseko Espainia Kopan ere getxotarren ordezkartza bat egon zen Cadizen (María Urizar, Teresa Ojembarrena eta Jon Berastegui).



Liher Pereda judoka, Espainiako txapeldunordea kadete mailan

Liher Pereda Bidarte, 16 urtekoa, kadete mailako Espainiako txapeldunorde izan zen apirilaren amaieran Huescan egindako txapelketan. Liher Algortako Shisei Judo Klubeko kidea da, eta denboraldi zoragarria egin du. Izan ere, Bizkaiko txapeldun izan da, junior zein absolutu mailetan, baita kadete mailako Euskadiko txapeldun ere. Gainera, bost domina lortu ditu Espainiako Kopen zirkuituan. Huescara joan zen, non txapelketa bikaina egin zuen, bere borrokaldi guztiak bikain irabaziz, eta non final oso parekatu batek bakarrik galarazi zion podiumeko gorenera igotzea. Domina horri esker, maiatzaren 24an eta 25ean Portugalgo European Cup txapelketan parte hartzeko deialdia jaso du.

Udal talde politikoaren iritzia



ZORIONAK ARENAS!!!!

Historikoa izan da, TXAPELDUNAK! Getxoko kirolaren egitandia, Arenas Futbol Taldearena, kategoriaz igo eta Getxo RFEF lehenengo mailaren mapan jarri baitu. Getxoko herritar guztiok eskerrak eman nahi dizkiegu taldeari, denboraldi bikaina egin duten jokalariei, entrenatzaileari eta talde tekniko osoari; funtsezkoak izan baitira hori lortzeko. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu historia luzeko zuzendaritzari, zuhurtasunez, diskrezioz eta dedikazioz bere ahalegin eta ilusio guztia jarri baitu une honetara iristeko. Halaber, jakina, ezin ditugu alde batera utzi mendeurrenako futbol talde honetako zaleak, taldeari lagundu baitie bai Gobelan bai ia joan-etorri guztietan, eta bai, irmotasunez esan dezakegu, 12. jokalaria izan direla!!!!

Eskerrik asko Arenas Futbol Taldeari. Izan ere, gure konpromisoa berresten du,

hau da, Getxo merezi dugun kirolaren hiria izateko konpromisoa, harrobiaren eta kirolaren aldeko apustu argi eta sakonarekin. Apustua egiten du gure hurrek kirol-jarduerarekin goza dezaten, eta harrobiarekin, hurrekin eta gazteekin lan egitea izan dadin Getxoko kirol-taldean eta -klubean oinarria eta balioa.

Orain, Arenas Futbol Taldeko ardura-dunekin batera egoera berria eta behar berriak lantzen jarraitzea dagokigu. Lan koordinatua, udal gobernuaren eta klubaren arteko lankidetzak, Arenas honi modurik onenean erantzuteko RFEF lehen mailako ligan.

Historia luzea duen gure taldearen mailan egoteko martxan jarri gara.

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO ARENAS!!!!



ZORIONAK, ARENAS!

Maiatzaren 4an, SD Eibar Bren aurka hutsean (0-0) gelditu ondoren, Arenas ligako txapeldun izan zen eta merezitako igoera lortu zuen RFEF 1. mailara. Partida honek amaiera ematen dio denboraldi bikain bati. Denboraldian Gobelan jokaturako partidetan beraiekin egoteko zortea izan dugu.

ZORIONAK merezitako garaipen eta igoeragatik!!

Hala eta guztiz ere, lorpen horrekin, argi eta garbi adierazten da udal-gobernuak duen utzikeria eta ezintasuna. Izan ere, ezin dio Getxori udal-futboleko estadio egoki bat eman.

6.000 ikuslerentzako lekua eta belar naturala izango duen proiektu bat behin eta berriz iragarri den arren, gaur egun bete gabeko hitzmatea izaten jarraitzen du. Arenas Futbol Taldeak bere lana bete du zelaian eta orain udalak falta den urratsa eman behar du. Arenas Futbol Talde horrek instalazio egokiak behar ditu kontuan hartuta lehiatuko den kategoria zein den ikusita. Alderdi Popularretik gure babes eskaintzen diegu Arenas Futbol Taldeari eta udalari instalazio horiek errealitate izan daitezen, klubak premiaz behar baititu.



ehbildu

ZIGORRA AZKORRIKO AUZOKIDEENTZAT

Andra Mari eta Azkorriko bizi-lagunak burugogorkeri baten eta erakundeen arteko itxurazko pultsu baten ondorioak pairatzen ari dira, Bizkaibusek erabakiko duelako bere zerbitzua Azkorriarte ez luzatzea, autobusak ezin duela buelta eman. Horren ondorioz, Zientotoxeko eta inguruko estarteko bizilagunak autobus-zerbitzurik gabe geratu dira.

Joan den apirilko osoko bilkuran gertatutakoa inguruko bizilagunen ezinegonaren isla izan zen.

Izan ere, udaletxera jo zuten bizi-duten egoeraren aurrean konponbidea eskatzeko: ezin da onartu auzoa autobus-linearik gabe geratzea eta Udala eta Aldundia ez izatea zerbitzuaren mantentzea bermatzeko gai. 85 urteko auzokide batek azaldu zuen herriko erdigunera iristeko modurik gabe geratu dela, oinarriko zerbitzuak eskuratzeko. Eta erakunde publikoen betebeharra eskubide hori pertsona guztientzat bermatzea izan behar da, aitzakiarik gabe.

EH Bilduk Gobernu Taldeari eskatzen dio eskura dituen baliabide guztiak jar ditzala alternatiba bat premiaz bilatzeko. Izan ere, egon badaude: Andra Maritik Azkorri-rainoko lanzadera-zerbitzua sortzea (kruzeroetako turistek, kaitik herriaren erdialderaino aparteko autobus-zerbitzua badute), Azkorriko aparkalekuaren zati bat egokitzea autobusak buelta eman dezan... Ezin da onartu Gobernu Taldeak gai honetan duen erantzukizuna bere gain ez hartzea: Udala izan zen biribilgune bat legez kan-

po eraiki zuena, horretarako legezko baldintza guztiak bete gabe. Eta bere akatsa onartu beharrean, Azkorriko ingurune naturala babestearen alde agertu ziren bizilagunei errua bota nahi die. Eta orain, bizilagunak zigortzea beren burugogorkeriagatik.

EH Bilduk presioa egiten jarraituko du, bai Udalak bai Foru Aldundiak arazoari irtenbidea eman diezaioten. Izan ere, arazo hori larriagotu egingo da uda iristean hondartzetara joaten den bisitariekin.



ARTEAK ETA KULTURAK KALEAK HARTU DITUZTE GETXOPHOTOAREKIN

Maiatzaren 29tik ekainaren 22ra bitartean, gure udalerrian **Getxophoto Nazioarteko Jaialdiaren** beste edizio bat egingo da, hau da, kultura bisual garaikidearekin jada finkatuta dagoen urteroko hitzordua. Honako hauek izango dira, besteak beste, esperientzia bisual horren eszenatokiak: **Algorta, Erromo eta Areetako auzoak, Algortako merkata, Algortako kasinoa eta Punta Begoñako Galeriak.**

Getxoko PSE-EE udal-taldeak gonbidatzen zaituzte obra horiek jarriko diren espazioetara gerturatuzera, kultura babestea identitatean eta garapenean inbertitzea dela uste baitugu. Getxophoto moduko ekitaldiak oso positiboak dira **gizarte-sarearentzat, artearen bidez espazio publikoak dinamizatu eta beste errealitate batzuekin konektatzen baikaituzte.** Aurtun, "Rec" izenburupean, komisario-lanak

egin dituen María Ptqk-en trilogia itxi da, 2023ko "Pausa" eta 2024ko "Play" gaien ostean. REC abiapuntutzat jo da honako gai hauek jorratzeko: irudien gainproduktzioa, artxiboen etorkizuna, AA eta haren erronkak eta nola, zergatik eta zer erregistratzen dugun. Suitzako, Japoniako, Ghanako, Italiako, Belgikako, Zeelanda Berriko, Taiwanoko, Argentinako, AEBko eta Turkiako artisten obrak egon dira.



TRAFIKO HANDIA

Udalbatzak gure proposamena onartu du Getxo eta Leioako udalok Gobelaurre kalean, Putzegilearen biribilgunearen eta Amaia kalearen inguruko mugikortasuna eta hiri-trazadura hobetzeko. Garrantzitsua da aurreikusitako hirigintza-garapenari aurrea hartzea. Garapen horrekin, are gehiago handituko dira trafikoaren dentsitatea eta inguruko pertsonen mugikortasuna.